



B ERANSKINA

Jarraian agertzen diren kidegoetako karrerako funtzionarioak:

- .Bigarren Hezkuntzako Katedradunak
- .Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
- .Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak
- .Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunak
- .Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleak
- .Musika eta Arte Eszenikoko Katedradunak
- .Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleak
- .Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradunak
- .Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleak
- .Arte Plastiko eta Diseinuko Tailerreko Maisu Maistrak

B.1.- Beste lurralde historiko batean lanpostua hautatzeko eskabide-epea

Erreferentziakoa ez den beste lurralde historiko batean lanpostua hautatzeko eskabidea egiteko epea 2019ko uztailaren 1tik 3ra egongo da zabalik (egun biak barne).

Eskabidea edozein Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzatan aurkeztu beharko da, H eranskinean agertzen den eredian.

B.2.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda

2019-2020 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda 2019ko abuztuaren 7ko 09:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean.

Pertsona horiek jarraian agertzen diren esleipen-talderen batean bilduko dira:

- a) Haien lanpostua eraldatzeagatik behin betiko destinoa hizkuntza-eskakizuna bete duten lanpostuetan izan eta egiaztatu ez duten pertsonak.
- b) Nahikoa ordu ez duen behin betiko destinoko lanpostua duten pertsonak.
- c) Espresuki lekualdatutzat jo diren pertsonak.
- d) Behin betiko destinoa espresuki kendu zaien pertsonak.
- e) Epaia betetzeagatik behin betiko destinoa galdu duten pertsonak.
- f) Lanpostu huts bat betetzeko zerbitzu-eginkizun bat eman zaien pertsonak.
- g) Destinoaren zain dauden, edo behin-behineko destinoa duten beste pertsona batzuk.

B.3.- Pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea 2019ko abuztuaren 7ko 09:00etatik 12:00etara egongo da zabalik.

Erreklamazioa dagokion lurralde-ordezkaritzan aurkeztu beharko da.



B.4.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda

2019-2020 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda 2019ko abuztuaren 8ko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.

B.5.- Prozesuan eskainitako lanpostuen zerrenda

Esleituko diren lanpostuen zerrenda 2019ko abuztuaren 8ko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.

Era berean aditzera emango da zein lanpostuk dituen ezaugarri bereziak.

B.6.- Parte hartzeko eskabidea betetzeko epea

Irakaslegunean dagoen eskabide elektronikoa betetzeko epea 2019ko abuztuaren 8ko 14:00etan ireki, eta 2019ko abuztuaren 9ko 14:00etan itxiko da.

B.7.- Esleipenaren behin-behineko ebazpena

Esleipenaren behin-behineko ebazpena 2019ko abuztuaren 14ko 12:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.

B.8.- Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea 2019ko abuztuaren 14ko 12:00etatik 2019ko abuztuaren 16ko 14:00etara egongo da zabalik.

Erreklamazioa irakaslegunean eskuragarri dagoen ikasturte hasierako aplikazio informatikoan agertzen den loturaren bidez aurkeztu beharko da.

B.9.- Esleipenaren behin betiko ebazpena

Esleipenaren behin betiko ebazpena 2019ko abuztuaren 29eko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.